

«No space, no time»

Maidar lantzi Goienetxe

Hala abesten du Garik gustuko du-dan kanta batean. Hala sentitu izan naiz batzuetan eta hala ikusi izan ditut ingurukoak ere. Erlojuaren orratzak urtzeko gogoz. Leku lasai bat topatzeko irrikatzen. Norberarentzat. (Eta ez du balio ohantzean lo gaudenean. Kotxea izan daiteke bidean goazela baina ez al da adierazgarria guretzat behar dugun espazio isil eta bakartia hori izatea?). Nabarmena da gero eta azkarrago goazela. Erranen nuke zenbat eta handiagoa hiri-ria orduan eta ziztu biziagoa hartzen dugula. Aldiz, naturara hurbildu orduko erritmoa moteltzen dugu. *Pause* botoia hortxe sakatzen dut azkenaldian eta era-

bat engantxatuta nauka! “Ttipi-Ttapa” al-dizkariko irakurle batek –Urdazubiko Ra-kel Pardok– bere gutunean dioen bezala, uneei ihes egiteko askatasuna ematen die-gunean bizitzak denboraren balioaz kon-tziente egiteko oparia eskaintzen digu. Uste dut tarteka lortzen dugula opari horretaz gozatzea, baina irakurle honek ai-patzen duenarekin ados nago: beldurra ere ematen digu deus egitekorik ez dugun momentuetan gure buruarekin topatzeak. Arriskutsu bilakatu zaigu espazioaren eta denboraren arteko talka hori. Erreminta garrantzitsua dugu; lokartuta dugu, orde-a eta ernatzera animatzen gaitu Rakel Par-dok. Geldiuneak berreskuratzera. Orduan

adituko ditugulako gure barreneko galde-rak eta horiek lagunduko digutelako egia-tan zer nahi dugun jakiten, baita kritikoa-go izaten eta norbere iritzia garatzen ere. Egunkarian ikusten dugu albiste bat ger-tatzen denean kasik momentuan ailega-tzen direla argazki, datu eta iritziak. Baina azkartasuna gauza batzuetarako hagitz ona eta zenbaitetan beharrezkoa ere izan arren, bertze aunitzetan lasaiago ibili be-harko genuke eta denbora hartu hausnar-tzeko eta kontrastatzeko. Burukoarekin kontsultatzeko denbora eskatzeak pentsa-ezina eman dezake –bezperako egunkaria irakurtzeko gomendioak bezala–, baina zergatik ez pixka bat frenatu? •

#EzGaraEzberdinak

Xabier Mikel Errekondo

Kuban ustekabe galanta eraman-nuen beltzen arteko arrazakeriare-kin topatu nintzenean. Azal beltze-koek beltzagoa dutenak gutxiesten dituzte, alajaina. Geroztik, garunaren giblean iltzatu zi-tzaidan ideia hori maiz pizten zait gure he-rri aurreratuan mendekotasunarekiko di-tugun jarrera negargarriekin. Istripuz ala eraginda, heriotza bat-batean topatzen du-tenek salbu, guztiok bizi(ko) dugu mende-kotasun mailaren bat. Konturatu nahi ez duenak ken ditzala betaurrekoak astebetetz eta ikusiko du... Horregatik orain hiru aste EiTBk mende-kotasunaren eta kirolaren inguruan eskaini-zuen erreportajeak tristura sortu zidan. As-

matu zuen baliabide ekonomikoak eta leiho komunikatiboa benetako sakonera so-ziala duen gaiari eskaintzean, baina ikuspe-gi zaharkituan geratu zen; «arazoak dituz-ten pertsonak gizartean integra ditzagun», laguntza hutsaren ikuspegia (lastima ere), gizartera ekarri bai baina eranskin gisa har-tzeko. Aitzitik, gakoa gizarte inklusiboa da. Non herritarrok egunerokoan barneratuta dugun guztiok eskubide eta aukera berdi-nak ditugula ikasteko, lanerako, bizitzeko zein sexurako, pertsonaren gaitasunei die-gun erreparatuko eta gabeziak baliabide nahiko jarritz estaliko. Adibidez, ahal den guztietan eskailerak kanpora. Eskaileren al-boan arranpa = integrazioa (aulkian mugi-tzen denak aparteko bidetik moldatu be-

har); arranpa guztiontzako = inklusioa. Di-seinu unibertsala orotarako. Posible dela guztiz sinetsita nago... Motxila21 taldearen #NoSomosDiferentes elkarlana datorkit go-gora, #EzGaraEzberdinak ([https://www.you-tube.com/watch?v=6HczjP6pNqk](https://www.youtube.com/watch?v=6HczjP6pNqk)). Mentalitatea zabaldu eta irauli behar du-gu. Pauso txikiak dira baina guztiok ema-nik emaitza erraldoia lortuko genuke. Adi-bidez, terminoak zaindu ditzagun: ez erabili “desgaitua”, baizik “desgaitasunen bat duen pertsona”; izan ere, aulkian mugi-tzeak ez du mugatzen beste milaka gaita-sunetan. Barneratu guztiok bizi dugula mende-kotasun mailaren bat eta erreparatu pertso-nen gaitasunetan gabeziak baino. •